

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun, gure inguruan dauden gazteei nahiz helduei galdetzean, arazo komun bat aurkitu daiteke; beraien aterkien lapurreta, eta hau, dagoeneko oso zabaldua dago, esate baterako, lantegi, supermerkatu edota ikastetxeetan ikus daiteke. Alegia, zona komunetan aurkitzen diren aterki-ontzietan euritakoa utziz gero, hau desagertzeko arriskua dago. Ondorioz, jendeak, aterkia kalera ateratzea ekiditen du.

Egoera hau ikusirik, hainbat enpresek esku-hartu dute. Esate baterako, denda edota enpresen irteerako aterki-ontzietan, enpresaren logoa duten aterkiak aurkitu ditzakegu. Horrela erabiltzaileak, horiek erabiltzeko aukera izango dute eta erabileraren ostean, hasiera batean aurkitzen ziren lekura eramango dituzte.

Baina egoera honen aurrean guk beste proposamen bat dugu. Hots, euritakoan lapurreta saihesteko, horiei giltzarrapo bat gehitzea. Horrela, norbanakoak bere aterki propioa nonahi eramateko aukera izango luke, hau lapurtua izateko beldurrik izan gabe. Beraz, produktuak bai balio kuantitatiboak bai balio kualitatiboak eskainiko ditu.

Alde batetik, balio kuantitatiboak dagokionez, prezioa errentagarria izango da. Alegia, prezio eskuragarri bat izango du, izan ere, pertsona gehienek erosi ahal izango duten produktu bat izango da. Gainera, bezeroa arduratsua izaten bada, aterkiak denbora asko iraun dezake eta ondorioz, lehenago ordaindutako hori merke irteten da, etorkizun batean, euritakoak erosteko erabiliko zenukeen dirua aurreztuko zenukeelako.

Bestetik, balio kualitatiboak daude. Hauei dagokionez, gure produktuak, segurtasuna, erosotasuna, erabilerraztasuna, eskuragarritasuna eta lana errazteko gaitasuna izango du.

Horretaz gain, lana erraztu dezakete, ez baitzara arduratu behar aterkia gorde ahal izateko poltsa bat hartzen edota zoazen tokira zoazela zurekin eramaten. Goian aipatutako bezala, denbora tarte oso txiki bat erabiliz zure aterkia seguru utzi dezakezu eta hortaz, erabilerraztasuna.

Segurtasuna, gure produktuak izango duen balio garrantzitsuenetako bat izango da, izan ere, lapurretak saihesteko sortu dugu produktu hau. Baina, hau balio gehiagorekin lotzen da, kontuan izanik, segurtasuna izateak, aterkiarekin kalera irtetzeko konfiantza eta lasaitasuna transmititzen duela eta ondorioz, erosotasuna ere.

Horretaz gain, lana ere errazten dute, ez baitzara arduratu behar aterkia gorde ahal izateko poltsa bat hartzen edota zoazen tokira zoazela, hau gainera eramaten, kontuan izanik, nonahi uzteko aukera izango duzula. Gainera, erabilerraza ere izango da, gure egunerokoan erabiltzen ditugun aterki eta giltzarrapoen sistema bera izango dutelako. Hots, sortutako produktuak, ez du ezagutzen ez dugun sistema berririk izango.